

Ormazabalaren paisaiak

Villabonakoaren koadroak ikusgai daude jubilatuen tabernan ▶ 5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Larunbata ▶ 2006-10-28 ▶ IV. urtea ▶ 999. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Berebiziko proba izango du Leidorren akustikak

TOLOSA ▶ 38. Abesbatzen Lehiaketa hilaren 31tik azaroaren 5era arte izango da 26 talderekin

TOPAKETA ▶ Hirusta, Landarbaso eta Santa Maria Zezilia abesbatzak Leidorren ariko dira gaur ▶ 2

BEGOÑA OLAMUSU ▶ LIBURUZAINA

«Liburutegi berria ez aprobetxatzea pena litzateke»

Arduradun berria da Leaburun ▶ 6

Bide Ertzean taldeak Gerra Zibilaz gogoeta egin du 'Non dira' disko berrian

TOLOSA ▶ Herenegun aurkeztu zuten Bilbon «kontatu gabeko sufrimenduari buruzko» hamairu abestiz osaturiko lana; Gorka Urbizu eta Kike Gonzalezen kolaborazioak ditu ▶ 3

TOLOSA ▶

UCAM Murcia taldea izango du gaur aurkari Hegoaldek

Kanpoan jokatu duten partida «oso zaila» izango dela azaldu du nesken entrenatzaile Dani Garciak ▶ 4



HITZA

OHARRA ▶



Ordua aldatuko da igande goizaldean: 03:00etatik 02:00etara

LEITZA ▶

Bengoetxea VI.a eta Barriola Lau t'erdiko finalerdien bila

Lehena Titin III.aren aurka ariko da gaur; bigarrena, bihar Ruizen aurka ▶ 7

GAUR Zinema etxean 2

8 DVD euskaraz

+ 4,50 €

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

KULTURA ▶

ESTI EZEIZA

Atzo aurkeztu zuten Donostian datorren astean izango den 38. Abesbatza Lehiaketa. Aurten gainera, bere «betiko» eskentokira itzuliko da txapelketa, hau da, Leidor antzokira. Ageraldian Jokin Bildarratz alkateak adierazi zuen bezala, «orain ikusi beharko da Leidorreko akustika berriarekin asmatu dugun edo ez».

Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta, Europa, Amerika eta Asiako herrialdeak ordezkatzen dituzten 26 abesbatza partaide izango ditu aurtengo lehiaketak. Gainera, hauetatik bi Euskal Herrikoak izango dira: Oñatiko Ganbara abesbatza eta Gasteizko Vocalia abesbatza. Hauetatik gain, lehen aldiz etorriko dira Puerto Rico, Indonesia eta Turkiako abesbatzak.

Ana Arretxe, CIT-TEE-ko Zuzendariak azaldu zuenez bi arrazoiengatik da berezia aurtengo edizioa. Alde batetik, Tolosa hiriarren 750. urteurrena delako. «Oraindik ere ospakizunetan baikaude, eta gainontzeko urteetan ere, munduko abesbatza onenak biltzen saiatzen bagara ere, aurtun oraindik eta gehiago». Eta bestetik, berriro, Leidorren ospatuko delako lehiaketa. Izan ere, joan den urteko eraberritze lanak zirela eta, Usabal kiroldegian ospatu zen txapelketa. Gai honen inguruan Alkateak atzo azaldu zuenez, «Leidor antzokia berritzeko asmoa agertu zenean, hiru alor nagusitan eman nahi izan zituzten hobe-kuntzak: barne erositasunean, espazio eszenografikoan, eta akustikan». Hala, «honekin, Leidor probatzeko garaia iritsi da».

Txapelketa honetan, lau sari-keta ezberdinen baitan ariko dira partaideak; ahots mistoen abesbatzena, ahots berdina, gaztetxoena, eta ahots taldeena. Epaimahaiari dagokionez, Europako eta Hego Ameriketako zazpi aditu ariko dira lanean: Dante Andreo argentinarra; Enrike Azurza tolosarra; Anders Eby suediarra; Naomi Fa-

Bildarratz: «Orain ikusiko da Leidorreko akustikarekin asmatu dugun edo ez»

Hilaren 31n hasiko da 38. Abesbatza Lehiaketa; honen aurretik, gaur, abesbatzen topaketa izango da Tolosan eta emanaldi bat, bihar Anoetan



Atzo, aurkezpenean, ezker-eskuin: Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Ana Arretxe, CIT-TEE-ko Zuzendaria; Imanol Agote, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria, eta Iñaki Almandoz, Kutxako ordezkaria. E.E.

ran israeldarra; Andreas Gopfert alemaniarra; Stojan Kuret italiarra eta Eugeniurz Kus poloniarra.

Abesbatzen topaketa

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak Tolosako Ekinbide Etxearekin elkarlanean antolatuta, Koruen arteko topaketa burutuko dute gaur, 20:30etik aurrera. Hemen, Gipuzkoako hiru abesbatzek hartuko dute parte: Oretetako Hirusta abesbatza, herri bereko Landarbaso, eta Donostiako Santa Maria Zezilia.

Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren aurretik egin ohi izan den Gipuzkoako abesbatzen arteko bilera da hau. Topaketa honetan, talde bakoitzak bere errepertorioa eskaintzeaz gain, guztiak elkarrekin ere abestuko dute Xabier Sarasolaren zuzendaritzapean. Kontzertu honetarako sarrerak hiru eurotaoak izango dira, eta egun berean egongo dira salgai Leidor aretoko leihatilan bertan.

Bihar, kontzertua Anoetan

Urtero legez, Txapelketa nagusiaz gain abesbatza parte-hartzaileek Euskal Herrian zehar, Aragoi (Espainia) eta Kantabriari (Espainia) hainbat kontzertu eskainiko dituzte. Hala, lehendabizikoa biharkoa izango da. Anoetako elizan, 19:00etatik aurrera, Erresuma Batuko Voces Cantabiles Abesbatzaren emanaldia izango da.

38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶ EGITARAUA

ASTEARTEA, URRIAK 31

20:00. Leidor antzokian, Accentus (Frantzia) abesbatzak Abesbatza Lehiaketaren Inaugurazio Kontzertua.

ASTEAZKENA, AZAROAK 1

11:00. Leidor antzokian, Haur Abesbatzen Lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen emanaldia.

16:00. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa.

20:00. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen kantaldia.

OSTEGUNA, AZAROAK 2

19:30. Leidor antzokian,

Musika Profano Sailean parte hartuko duten Ahots taldeen ekitaldia.

OSTIRALA, AZAROAK 3

18:00. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartu duten abesbatzen emanaldia.

22:00. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen emanaldia.

LARUNBATA, AZAROAK 4

11:00. Santa Klara elizan, Musika Erlijioso sailean parte hartuko duten ahots taldeen kantaldia.

16:00. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte

hartuko duten abesbatzen saioa.

19:30. Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia saioetan parte hartuko duten abesbatzen emanaldia.

22:00. Tolosako udaletxean Lehiaketara etorri diren abesbatza zuzendariak eta pertsonaiei Harrera Ofiziala.

IGANDEA, AZAROAK 5

11:00. Leidor antzokian, Lehiaketako amaiera saioa eta sari banaketa. Ekitaldia *agur jaunak* abestuz amaituko dute.

14:30. Udal Ferialekuan abesbatzen bazkaria.

19:00. San Frantzisko elizan, University of Louisville Cardinal Singers (AEB) abesbatzen kontzertua



38. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekiniza

kultura

Babesle Ofiziala

kutxa
zer nahi duzu bihar?

MUSIKA ▶

«Ez da gerraz hitz egiten beldurragatik»

Bide Ertzean-ek 36ko gerraz gogoeta egiten duen 'Non dira' lana aurkeztu du

ERREDAKZIOA

36ko gerraz hausnartu dute Bide Ertzean taldeko musikariek disko berria. «Kontatu gabeko sufrimenduari buruzko kantuak egin, eta istorio gogorak bezain ederrak» jaso dituzte Gaztelupeko Hotsak diskearekin plazaratu duten *Non dira* lanean. Espainiako gerrak gogor astindu zituen Ubedatarrek. Baina etxean galdera gutxi egin dituzte Euskal Herriko hainbat senditan hainbeste min eragin zuen gerraz. «Ez da erraza sufrimenduaz hitz egitea», aipatu zuen Ima-

nol Ubedak taldeko gitarrista eta abeslariak aurkezpenean.

«Gerra bizi zutenek ez dute horretaz hitz egin nahi, beldurra dute oraino. Baina jakin nahi genuen zer gertatu zen benetan, eta gure etxean zer ondorio izan zituen gerra». «Gerraostea oso gogorra izan zen alarguentzat eta gerra umeentzat. Beti hitz egiten da Mexikora edo Errusiara bidaltako haurrez, baina izan ziren beste erbeste batzuk. Gure sendian, Altsasutik Espainiara joan behar izan zuten».

Alabaina, disko biografikorik ez dutela egin argitu dute.



Bide Ertzean taldeko partaideak. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

«Ez da Ubedatarren historia-
ren diskoa». Ez dute beren
etxeko gerraz hitz egin. 36ko
gerraz baizik. Dokumentazio
lana egin ondotik, 13 abesti
idatzi ditu Imanolek. Gaurko
kantuak dira, garaikideak,
duela 70 urte hasi zen gerraren
hariarekin jositakoak. «Gure-
tzat erronka handia zen abes-
tien hitzak guk geuk egitea». Gerra
desagertutakoez mintzo diren
kantuak egin dituzte, beraiek.
Eta gustura daude emaitzarekin.

13 *rosas rojas* abestia, esa-
terako (euskaraz abestia, izen-

burua gaztelaniaz duen arren)
gerraostean hil zituzten Juv-
tudes Socialistaseko 13 ema-
kumeen omenez egin dute. *Les
dones del 36*, bestalde, Katalu-
niako izen bereko elkartearen
oroimenez. Emakumeen esku-
bideen alde lan egiten zuen tal-
de horrek, Errepublikara iras-
teko eragin zuen puntu bat
duela esan du Imanolek.

Musikari dagokionez, apain-
dura gutxiko abestiak direla
adierazi du Karlos Aranzegi
bateria eta perkusio jotzaileak.
«Kantu biluziak ekarri zituen

IMANOL UBEDA

GITARRISTA ETA ABESLARIA

«Jakin nahi genuen
zer arraio gertatu zen
benetan, eta gerrak
zer ondorio izan zituen
gure etxean»

Imanolek, ahotsa eta gitarra
besterik ez zutenak, eta ez ditu-
gu asko moldatu. Jantzi ditugu,
baina oso modu xumean». Jo-
serra Senperenaren pianoaren
doinuek abestiak «minimalis-
mora» eraman dituela dio
Aranzegik. «Oinarrizko abes-
tiak dira, 36ko gerraren konta-
ketari soinua jarri, eta popa
eginez, folkera hurbildu gara».

Bide Ertzean taldeko musi-
kariek, Ubeda anaiek, Aranze-
gik, Senperenak eta Fran Itur-
be gitarristak, Andoingo Gar-
rate estudioan grabatu dute
Non dira diskoa, Kaki Arkara-
zoren laguntzaz. Baita beste bi
musikarirena ere: Gorka Urbi-
zuk eta Quique Gonzalez ma-
drildarrak kantu bana abestu
dute: *Non dira* eta *Ez dut atzera
egingo*, hurrenez hurren.

JAIK ▶

Ekitaldi ugari antolatu dituzte, gaur eta bihar, Olarrain auzoko jaien baitan

Auzokideen arteko afaria eta trikitilarien saioa izango dira gaur

ENERITZ MAIZ

Atzo, mus txapelketarekin hasi baziren ere Olarrain auzoko jaiak, eguraldia lagun, gaur eta bihar izango dute jarraipena.

Gaur, egunean zehar ekitaldirik ez dagoen arren, auzokideek elkartzeko aukera izango dute ilunabarreko bederatzietan egingo duten auzokideen arteko afarian. Tripa ondo bete ostean, trikiti doinuek alaituko dute auzoa; horretan saiatuko

da Aiora eta Maitanek osaturiko bikotea. Beraz, dantza egin nahi duenak izango du aukera.

Bihar, goizeko 10:00etarako hasiko da jaiak, Mendiko Bizikletaren XVIII. Travesia herrikoien artearekin. Ondoren, auzoko haurren eta helduen txanda izango da. 12:00etan, bazkariaren aurretik, ohiko hamaiketako egingo dute auzoko helduek eta 12:30ean txikienez, ume jolasak antolatu dituzte. Honen ostean,

14:30ean, mahaian eseritzeko unea iritsiko da auzokideen arteko bazkarian. Bixente Gorostidi eta Ekaitz Goikoetxearen bertsoak entzun ahal izango dituzte bazkari-legea egin ostean. Bertsolarien lana bukatzean, dantza saioa dute Aiora eta Maitane trikitilariekin; beraz, hanka eta besoak luzatzeko aukera emango zaie bertaratuei arratsalde osoan zehar.

Jaiak bukaera emateko baratzuri-zopa egingo dute, baina



Iazko une bat. HITZA

antolatzaileek ez dute zehaztu zein ordutan emango zaien amaiera, aurtengo Olarrain auzoko jaiak.

KULTURA ▶

Hiru kontzertu gaur gauean Bonberenean, 22:30ean

E. MAIZ

Asteburukaera gehienetan bezala, gaur ere, Bonberenean musikaz gozatzeko aukera izango da, 22:30etatik aurrera. Ostegunean aurkeztu zuten *Bonberenea Suffle* bertan eskainitako zuzenekoak biltzen dituen DVDaren baitan, egitarau oparoa antolatu dute gaurko; hala, taula gainean entzungai izango diren taldeak, Zea Mays, Eraso! eta Jone izango dira.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldecohitz.a.nfo

TOLOSA ▶ KIROLAK

«Oso partida zaila» du Hegoaldeko UCAM Murciaren aurka

Gau guztian bidaiatu ondoren, Tolosako areto futbol taldeak gaur arratsaldean jokatu du partida Murtzian

IMANOL GARCIA

Areto futboleko Hegoaldeko taldeak partida jokatu du gaur UCAM Murciaren aurka. «Oso partida zaila» izango da, Dani Garcia entrenatzaileak azaldu duenez: «Ligako talde indartsuenetakoa da. Egun bosgarren postuan dago eta urtero tituluak lortzeko lehian aritzen da».

Atzo ateratzekoak ziren jokariak eta gau osoan autobusean eman ondoren, gaur 17:00etan jokatu dute partida. Bidaian zehar lo egin beharra ere desabantaila izango da talde tolosarrarentzat. Hala ere, «gogotsu» joango dira, Garciak azaldu duenez. Aste honetan, gainera, denboraldi hasieratik talde guztia entrenatu ahal izan da eta horrek bere eragina izan behar duela uste du entrenatzaileak: «Jokariak berreskuratu ditugu. Arazo asko izan ditugu denboraldian zehar lesioengatik. Jarraitasunik ez da egon taldean eta horrek gure kontra jokatu



Hegoaldeko jokariak entrenamendu batean. ESTI EZEIZA

du». Bi jokari, ordea, ez dira joango Murtziara: Amaia Azpilikueta, arrazoi pertsonalengatik, eta Ana Berciano, lesio bategatik.

Hegoaldeko egun 13. postuan dago, azkenlaugarrena sailkapenean. Azkeneko neurketan Cajasur Cordobaren aurka jokatu zuen Ibarako Belabietako kiroldegian —Usabalen Eus-

kal Kirolaren Eguna ospatzen zen— eta launako berdinketarekin amaitu zuen. Lehenengo gola tolosarrek sartu bazuten ere, aurkariak markagailuan 1-3 eta 2-4 jarri ziren aurretik. Azkeneko Hegoaldeko berdinketa lortu ahal izan zuen. Aurkariak penalti bikoitza izan zuten azken minutuan baina ez zuten golik sartu.

ANOETA ▶

Alkartasunaren bazkarian izen-ematea

Alkartasuna Biltokiak, urtero bezala, Milagrosa egunaren inguruan bazkaria antolatu du. Azaroaren 25ean izango da eta azaroaren 22ra arte eman daiteke izena. Bazkideek 22 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek 25 euro. Bestalde, azaroaren 12an bazkideek bidai komertzial batera joateko aukera izango dute, Loiolara. Autobusa, gosaria eta bazkaria dohainik izango da. Gero San Ignazioaren museoan ikustera joateko aukera izango dute, hiru euroko sarrera ordainduta. Autobusa osatzeko 40 lagunek gutxienez izena eman behar dute.

ZIZURKIL ▶

Ardo dastaketa ikastaroa Urkamendin

Manuel Mendez Martinezek ardo dastatze ikastaroa emango du azaroaren 8an, Urkamendi elkartearen, 19:45etik 22:30era. Mendez ardo dastatzailea da, enologia masterra egina du Erriberriko Eskolan eta hainbat komunikabideetan kritikolaria gaitzen ditu. Ikastaroak 15 euro balio ditu eta izena azaroaren 3a baino lehen emango da udal bulegoetan edo Urkamendi elkartearen.

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoentzako partidak asteburuan

Behar-Zanako pilotarietako hainbat partida jokatu dituzte asteburuan. Gipuzkoako eskuko txapelketan, gaur, Intxaurrondon Lizaso-Iraeta seniorrek Intxaurrondoren aurka jokatu dute eskuz binaka 12:00etan. Hernanin, 17:00etan, Ander Aranburu seniorrak eskuz binaka Hernanikoaren aurka. Bihar, Amasan, Karrera-Intza kadeak, 12:00etan eskuz binaka Eskoriatzaren aurka.

IRURA ▶

Bi ikastarotan parte hartzeko aukera

Ikastaroen aurten denboraldia abian da dagoeneko baina oraindik badago aukera zenbait ikastarotan parte hartzeko. Ziri enkajea, adibidez, astelehenean 16:00etatik 18:00etara da eta oraindik 4 edo 5 leku daude libre. Bestea, aerobik ikastaroa, astelehen, asteazken eta ostiraletan 15:15etik 16:15era da eta oraindik 5 edo 6 leku daude libre. Informazio gehiago 943 69 13 33 zenbakian, kultura bulegoan goizez, liburutegian arratsaldean, edo kultura.irura@udal.gipuzkoa.net helbidera idatziz.

h h h h h h h

Citroen C4 Picasso 7 eserlekudun auto berria






Benta aldea industrialdea • Anoeta • Tel.: 943 65 29 33



Corsa Berria!

OPEL Giauto

Benta aldea industrialdea z/g
ANOETA 20270 • Gipuzkoa
Tel.: 943 65 00 49

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA

Ormazabal lanak ikusteko azken egunak

Ezgunak diren natura paisaiak daude oleoz margotutako mihiseetan

NEREA URBIZU

Alegiako jubilatuen tabernan dagoen erakusketa Maria Rosario Ormazabalena da, billabonatar batena, hain zuzen. Honakoak azken egunak izango dira afizioz margotzen duen emakume honen koadroak ikusteko.

Orokorrean erakusketa honetan ikus daitekeena paisaia figuratiboak dira: gizakiak, animalien bat, eta esistitzen duten paisaiak: ez dago asmatutako paisaiarik erakusketa honetan. Horren adibide hauek izan daitezke: Donostiako Kontxa, Frantziako ataria, Zarautzko paisaiak eta abar. Bestela, berak kalean hartutako irudiak daude, detaileak; hala nola, leihoak, etxaurreak, edo artzaintza animaliekin. Berak dioen bezala, «argazkietatik zuzenean margotzen dut».

Oleoa erabiltzen du guztietan, nahiz eta «akuarelan ere zer edo zer egin, baina azkenaldian oso gutxi». Ormazabalek aitortu zuenez, «Alegian dauden koadroak nire etxeko hormetan daudenak» direla, «duela 15 urte inguru margotutakoak».

Ez dugu Maria Rosario Or-

mazabal margolari berria erakusketetan, duela urte batzuk jada «Villabonako udaletxean ere jartzen nituen, festetan eta egun berezietan batez ere». Baina, «ez dut saltzeko egiten, baizik eta gustuko» duelako: «askotan oparitu egiten ditut koadroak, lagunei edo ezagunei emateko, alegia».

Estiloaren inguruan

Estiloari dagokionez inpresionismoa da gehien gustatzen zaiona, baina margotzerako orduan ez da nabarmentzen dena: pintzeladak txikiagoak dira, margo askorik gabeak, hain zuzen, eta ez du teknika berdina erabiltzen.

Ez da abangoardiako koadrorik ikusiko erakusketan, baina billabonatarren esan zuenez, «egin izan ditut batzuk, batez ere semeari estilo hau gustatzen zaiolako».

Koloreei dagokionez, okreak eta txuri ezberdinak dira gehien erabiltzen dituenak erakusketa honetan «baina paisaiak hala eskatzen duelako, ez da gustuko dudalako». Izan ere, «garai edo boladaren araberakoa da: ezin da kolore bakar bat aukeratu».



Etxaurrea eta bankua. Margolariak okrea eta txuriska asko erabiltzen du, baina oinarrian hori behar delako. Inpresionismoa da gehien gustatzen zaien margogintza garaia, baina margotzeko orduan ez du horri kasurik egiten: oleoa erabiltzen du guztietan. N. URBIZU



Leihoa eta loreontzia. Margolan hau etxe barrutik margotuta dago: etxe zaharretako koloreak ederki lortzen ditu, batez ere txuria lantzen duenean. N. U.



Emakumea bizkarrez. Erromantizismo garaian erabiltzen ziren kolore apalak, pastelak agerian uzten ditu Maria Rosario Ormazabalek. N. URBIZU

MARIA ROSARIO ORMAZABAL ▶ MARGOLARIA

«Margotzeak jendea ezagutzeko eta sozializatzeko balio dit»

Villabonakoa da Maria Rosario Ormazabal margolaria jaiotzez, baina denbora asko darama Donostian bizitzen. 15 bat urte daramatza bertan margotzen eta gustuz klaseak jasotzen.

Naturako paisaiak gehienbat: kalean margotzen duzu?

Ez, egia esan ez. Gehienetan argazkietatik kopiatzen dut: ni neu joaten naiz argazkia egitera eta gero argazkiak jasotako margotu.

Aspaldi hasi zinen margotzen? Zeinek?

Betidani gustatu izan zait, txi-

DI-DA BATEAN ▶

Margotu behar den lekuren bat? Kontxa, Donostia, orokorrean.

Arte bat? Pintura.

Kolore bat? Orain laranja.

Urtaro bat? Udazkena.

Artista bat? Asko. Ez dakit...

kitatik. Baina serio 25 bat urte, edo gehiago. Katalina de Erauson ari naiz orain, eta lehena go Tolosako Kultur Etxean jasotzen nituen ikastaroak. Orain Iñaki Alvarezekin ikas-

ten dut. Gustura nago irakasle honekin, oso ona da.

Zergatik margotzen duzu?

Asko lasaitzen nau, betetzen duen zerbait da. Gustura egiten dut, eta jendearekin harremanetzeko balio du, sozializatzeko.

Hurrengo erakusketa non?

Ez dakit. Alegitik deitu zidaten eta ia pentsatu gabe jarri nuen: egia esan, etxeko hormetan dauzkadan koadroak dira. Etxean obrak egin behar genituen eta Alegiko erakusketan jartzeko aprobeztatu nuen. Non hobeto, ez? ◀



Kontxa hondartza. Margolari askok aukeratzen duten paisaia da, ikusle guztiek igartzen dutena gainera. N. URBIZU

LOGOPEDIA ZERBITZUA

Ebaluazio, diagnostiko eta tratamendu logopedikoa

- Artikulazio arazoak
- Irakurketa-idazketa arazoak
- Hizketa arazoak
- Irensketa ez-ohikoa
- Hizkuntza atzerapenak

tel.: 639 24 06 54 ALEGIA

OREXA ▶ KULTURA

Orexa eta auzo herriak
mintzagai Kultur Astean

M. Soroa ▶ Asteazkenean ekin zioten orexarrek Kultur Asteari. Lehenengo ekintza gisa, David Zapirain Aranzadiko kidea izan zen udaletxeko ganbaran hitzaldia eskainiz. Hitzaldiaren leloa *Orexa eta auzo-herrien arteko auziak* izan zen. 20 lagun inguru izan ziren bertan eta «hitzaldi interesgarria» izan zela adierazi zuten gainera. Atzokoan, berriz, *Nora hoa neska* antzerkiak gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. HITZA

BELAUNZA ▶

Bihar, 18. urtez
Jubilatu Eguna
egingo dute

Bihar ekingo diote Belaun-
tzako jubilatuek beraiantzat
sorturiko eguna ospatzeari.
12:00etan meza izango da
eta ondoren ohiko toka txapel-
keta elizarreran. Bazkariarekin
jarraituko du festa giroak,
izan ere, 14:00etan tripa lagun
arte anasetzeko aukera izango
dute Benta taberna. Ondoren,
Galtzaundi Euskara Taldeak
antolatuta, Bertso Musikatuak
saioa izango da 16:30ean
tabernan bertan.

BERASTEGI ▶

Gaur hasiko da
Berastegiko
4. argazki rallya

Laugarren urtez, Berastegiko
Aldin Kultur eta Kirol Elkarteak
argazki rallya antolatu du.
Aurtengo gaia, zuhaitzak
izango da. Argazki rallyan
kamera analogikoarekin har-
tu behar da parte eta elkarteak
emango ditu argazki karre-
teak. Hain zuzen, gaur
emango dituzte 19:00etatik
19:30era eta jaso, berriz,
asteazkenean ordu berean. Kar-
reteak eman eta jasotzeko
udaletxe azpian elkartuko
dira parte-hartzaileak.

BEGOÑA OLAMUSU ▶ LEABURUKO LIBURUTEGIKO ARDURADUNA

«Pena litzateke
horrelako liburutegia
ez aprobetxatzea»

Asteazkenean inauguratu zuten Leaburuko liburutegiaren
ardura hartuko du Berrobin bizi den tolosarrak



M. SOROA

MADDI SOROA

Tolosan jaioa den arren, Berrobin bizi da Begonia Olamusu Leaburuko liburutegiko arduradun berria. Hemendik aurrera bertan izango da astelehena eta asteazkenean 17:00etatik 19:00etara.

Berri ona Leaburur, liburutegi berria, alegia.

Oso berri ona da liburutegia zabaltzea. Orain, ordea, erabili egin behar dute, izan ere, pena litzateke horrelako toki bat ez aprobetxatzea. Oso toki alaia da, oso argitsua eta sekulako paraje ederrean dago. Oso liburutegi gutxi daude horrelako toki eta argitasunarekin. Zorte handia dugu.

Zer moduz joan zen inaugurazio ekitaldia?

Herri txikietan ez dago ohiturarik horrelako ekitaldiak egiteko baina oso ondo atera zen eta haur asko joan zen bertara. Orain, ordea, eguneroko lana egin beharra dago.

Nori zuzendua dago liburutegiko zerbitzua?

Herri osoari zuzendua dago, haur, gazte nahiz helduren topagune izateko bideratua baitago. Herriko jendearentzat aretoa probetxugarria izan da din nahi dugu.

Zer aurkituko du hara joandakoak?

Dauden liburutegi gehienak euskarazko eleberririk dira. Materiala liburu asko ere badago, mota guztietakoa, kirola, artea, medikuntza... KZgunea ere erabil dezakete liburutegi orduetan bertara joaten dire-

nek. Ordenagailuetan, berriz, bilaketa zerbitzua eta KZgune-ko posta erabil ahal izango dute.

Maria Luisa Agirrerren liburutegi ere bada tartean, ezta?

Bai, liburu mordoa eman dizkio liburutegiari, era guztietakoak dira, materiakoak, eleberriak. Askok lagundu digu liburutegia aurrera ateratzeko. Maria Luisa Agirrerren lana eta laguntza eskertu beharrean gaude.

Zein litzateke erronka nagusia?

Liburutegiak topagune izaera izatea nahiko gure eta herriak probetxua ateratzea. Herri handietara joan beharrean, herri txikietan ere horretarako aukera badagoela ohartarazi nahi dugu jendea. Erronka, beraz, herritarrek liburutegia erabiltzea litzateke. Jendea animatu dadila eta etor dadila lasai liburutegira. Elkar ezagutzeko eta laguntzeko izango naiz bertan, galderak erantzuteko eta dudak argitzea.

Telebista ez al da gailendu liburuaren alboan?

Irakurtzen zalea denak beti lortzen du gogoia eta denbora irakurtzeko. Egia da, ordea, gaur egun gizartea era erosoan bizi dela eta telebista aurrea hartzen hasi dela.

Mahala
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Iruia), Pisu.
Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, 17-140 m², Bistekin.
Salgai (Tolosa), Pisu Larramendi kalean.
Salgai (Tolosa), Ileaipaindegia lurre auzoan.
Salgai (Tolosa), Belarrenda, kale Nagusian.
Salgai (Tolosako lurren), Ofizinalokala.
Salgai Garajeak, Ibarren eta Tolosan.
Alokatzeko, Pisu. Estrenatzeko estazioaren ondoan, garajearekin.
Alokatzeko, Garajeak, Araba elorbidean, San Frantzisko eta lurre auzoan.
Alokatzeko (Tolosa), Lokala, Herrenterri kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

LANA

Soldatzailea. 35 urte azpiko soldatzailea behar da Adunan, plano interpretazioekin.
685 75 80 93

Ileaipaintzailea. Tolosako ileaipaindegi batek esperientzia handiko langilea behar du.
625 70 50 59.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. Gaztetxeak egoera zailean daude azkenaldian. Desalajoak ugari dira, azken kasua Villabonakoa izan da. Zein iritzi duzu gai honen inguruan. Sartu gure webgunean eta eman iritzi.

LEITZA ▶ KIROLA

Barriola eta Bengoetxea VI.a asteburuan, final-laurdenetan

Bengoetxea VI.ak Titin III.aren aurka jokatu du gaur Labriten, 16:45ean, eta Abel Barriolak, Patxi Ruizen aurka, bihar, 18:15ean Bergarako frontoian

NAIARA GARZIA

Lau térdiko Txapelketako hainbat partida eta gero, kaiola pixkanaka estutuz doa, jadanik final-laurdenetan baikaude. Aurrera doazen pilotariak gero eta gutxiago izateaz gain, distantzi honetako pilotari nagusiak orain azaltzen hasi dira: Olaizola, Xala, Titin eta Patxi Ruiz. Xala izan zen estreinatuz zen lehenengoa, atzo, Irujoren aurka. Gaur, berriz, Titin III.aren txanda izanen da, eta Bengoetxea VI.aren aurka ariko da arratsaldean Labriten. Eta bihar, Patxi Ruiz eta Abel Barriola, Bergarako frontoian. Haiena, 18:15ean hasiko den jaialdi baten lehenengo norgehiagoka izanen da.

Bengoetxea VI.a eta Titin III.aren arteko partida gazteen eta beteren arteko partida esanguratsua izanen da, bi belaunaldien arteko lehia, alegia. Izan ere, Titin nerabe bat zela, Bengoetxea ez zen oraindik jaio ere egin. Aspe Asegarceren aurka, 37 urtetako pilotaria 22 urtekoaren aurka, eta koadro honetako beterranoa, promesa gaztearen aurka. Ez dira, ez, gaurko pilota partida jarraitzeko arrazoi gutxi.

Bengoetxea VI.ak eta Titin III.ak pilotak asteazkenean aukeratu zituzten: leitzarrak bi Punpa aukeratu zituen, eta bere arerioak, Punpa bat eta eta Cipri bat. «Nik beti Punpa erako pilotak aukeratu ditut, finak, politak, lurrean ongi ibiltzen direnak», esan zuen leitzarrak material hautaketaren ondoren. Txapelketan orain hasteak ere bere alde txarrak baditu, pilotari errioxarrak esan zuen bezala: «Bengoetxearen bi partidak ikusi ditut. Behetik heldu denak prestatzeko denbora gutxiago izan ohi du, baina partidak pasatzen baditu, erritmoa eta txapelketarekiko konfidantza areagotzen doaz. Ni entrenamenduetan



Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea Beotibar pilotalekuan, arriboko irudi batean. J. SAIZAR

gustora gelditu naiz. Hala ere partida iritsi arte benetan nola zauden ezin duzu jakin». Bengoetxea VI.ak, berriz, Lau t'erdiko Txapelketa hasieratik erakutsi duen apaltasunarekin, «partiduz partiduz» doala argi utzi zuen. «Lehenengo partidatik jokatzeko nuen norgehiagoka besterik ez dut kontuan izan. Oraingo bi irabazi ahal izan ditut eta orain Titinen aurkakoan besterik ez dut pentsatzen. Pilotari handi baten kontrako partida dela badakit, baina aldi berean nire lana ongi egiten badut, lan handia emanen diot aurkariari».

Abel Barriola

Lau t'erdiko Txapelketa aurrelarien jokua dela argi dago. Orain arte txapelketaren

amaierara iritsi diren atzelariak begiratzera besterik ez dago, saria hiruek soilik irabazi dutela ikusteko: Galarza III.ak 1993an, Arretzek 1996an eta Barriolak 2001ean. Bihar ko partidaren xarma hori izanen da, txapelketan aurrera doazen atzelarien arteko norgehiagoka izanen baita, Patxi Ruiz eta Abel Barriolaren artekoa, hain zuzen ere. Ostegunean egin zuten material hautaketa eta pilota oso ezberdinak aukeratu zituzten. Leitzako pilotariak ordu laurden osoa agortu zuen, eta pilota arinak aukeratu zituen: 102,5 eta 103,7 gramokoak. Patxi Ruizek, aldiz, hiruzpalau minuturekin nahikoa izan zuen. Asegarcen pilotak besterik ez zituen probatu, Aspekoak ez baitzitzizkion «batere gusta-

tu». Patxi Ruizek hautatutakoak astunagoak dira, 105,4 eta 106,8 gramokoak.

Leitzarrak argi utzi zuen sarkoa «oso garrantzitsua» dela eta atzelaria izanda, abantaila dutela azpimarratu zuen. «Azken urteetan jokatu dudana partida garrantzitsua da. Azken txapelketetan pattal aritu naiz, eta igandean berriz ere finalerdietara sartzeko aukera izango dut, handien artean». Patxi Ruizek ere Titin III.aren beldur bera azaldu zuen. «Norgehiagoka polita izanen da, baina baita arriskutsua ere, aurkariak erritmoa hartuta baitauka dagoeneko».

Bi partida hauek teleshistik botako dituzte: gaurkoa Telecincon emanen dute 16:45etan, eta biharkoa, ETB 1en, 18:15etan.

LEITZA ▶

'Alhambra printzea' bihar ikusgai, 17:00etan

N. GARZIA

Bihar Denok Bat guraso elkarrekin eta Udalak antolatuta *Alhambra printzea* izeneko marrazki bizi-duneko filma izanen da ikusgai, 17:00etan; sarrerak 3 euro balioko ditu.

Ahmed printzea Alhambra egoteaz asper eginda dagoenez, Granadatik Nafarroa alde egiten du neska gazte baten poema maitakor bat irakurri ondoren.



Filmako kartela. HITZA

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228
▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxis: 670420
▶ Taxis (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016
▶ Iurrumendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

OINATZ BENGOTXEA ▶

«Pilotari handi baten aurkako partida izanen da, baina aldi berean lana ongi egiten badut, lana emanen diot»



ABEL BARRIOLA ▶

«Azken urteetan jokatu dudana partida garrantzitsua da; azken txapelketetan pattal aritu naiz»





AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Laugarren argazki rallya antolatu dute. Gaia: zuhaitzak izango da. Karretek banatuko dira 19:00etatik 19:30era. Karretek bueltan jasoko dira azaroaren 1ean.

Berastegi. Muñagorri ikastetxeko gimnasioan 22:00etan Koldo Amestoyek *Harriola Marriola* saioa eskainiko du, helduentzako ipuin kontaketa.

Orexa. Kultur Astearen baitan, 17:00etan, haurrentzat ibilaldia herri inguruan, gaztain bilketa eta ondoren gaztain jatea.

Tolosa. Formakuntza eta enpleguari buruzko hitzaldia Gaintitzen-ek antolatuta, 09:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. *Bonberenea Suffle* DVD-aren aurkezpenaren baitan, Zea Mays, Erasol eta Jone musikariak izango dira Bonberenean, 22:30tik aurrera.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Esperientziak, XX.* mendeko memoriaren berreskuratzeko proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* erakusketa Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatetxean azaroaren 17ra arte.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, 22:30ean, *La joven del agua* filma.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1.
943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegan.*

Goiko irrati
(107.0 FM)
12:00. *kornera*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Beotibarretik Saharara

TOLOSA ▶ 'Frontoetik eskolara Tolosatik Saharara' jaialdiak 1.500 euro inguru bildu ditu Saharako eskola umeentzat aisialdi gunea eraikitzeko



Fronte Polisarioko Mohamed-Moulud, Pako Gereñu, Armando Roca eta Ion Diaz, sari banaketan. i. t.

ERREDAKZIOA

Pasa den asteazkenean egin zuten Sahararen aldeko jaialdia Beotibar pilotalekuan. Gure Txokoa eta Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta. 300 pertsona inguru bildu zituen jaialdia «oso polita» izan zen, eta lortutako emaitzekin «oso gustura» geratu dira Sahararen aldeko elkarrekin. «Jaialdi honen bidez 1.500 euro inguru biltzea lortu ditugu, eta hori Saharako eskola umeentzat eraikitzen ari diren aisialdi



Paleta goma partidako une bat. i. TERRADILLOS

gune baterako erabiliko dute», adierazi dute elkartetik.

Jaialdiko ikuskizunik bereziena Armando Rocaren eta Paco Gereñuren arteko apustua izan zen. Lehenak, 80 metro troko pista batean 120 metro egin zituen korrika eta bigarrenak, 80 metro, hauetatik erdiak, hanka baten gainean eta beste erdia atzeruntz. Azkenean, gutxiagatik izan bazen ere, Armando Rocak irabazi zuen bien arteko apustu hau. Abraham Olano eta Peio Ruiz Cabestani batetik eta Ruben Gorospe eta Marino Lejarretaren arteko frontenis partida azken hauen aldeko emaitzarekin amaitu zen. Bestalde, profesionalen arteko paleta goma partidarekin amaitu zen jaialdia.

Ekitaldia amaitu ondoren kirolari guztiek bi elkarrekin kideekin batera afaria izan zuten Gure Txokoa elkartean. «Afaria oso berezia izan zen eta giro polita sortu zen bertan», azaldu dute. Halaber, jaialdian bi laguntzako afariak zozketatu zituzten, eta horregatik Beti Alai, Fronton, Sausta, Izaskun, Astelehena, Burruntzi, Julian, Orue, Zuloaga Txiki eta Izaskun tabernak eta jatetxeak eskertu nahi izan dituzte antolatzaileek, eta baita Shanti Kirolak, Udala eta jaialdira joandako herritarrak.

AGURRAK ▶



LUIXITO ETA MIRIAN

Zorionak mexikanos! Egun ona igaro bikote! Gaur sekulako parranda botako dugul!



URTE ASKOAN
Maddi Aizpirtate (Alegia).
Zure anai Ugaizt eta etheko gainerakoen partetik.



URTE ASKOAN
Irati Ropero Saizar (Alegia).
Gaur 2. urte. Zorionak familia guztiaren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea